ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abuztuaren 16a, ostirala • 94 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 539/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onespena ematea erabaki hau aldatzeari: 2018/2019 kanpainan Eskola Kirolaren Programan jasotzen diren jardueretan parte hartzeko dirulaguntzen deialdia onetsi zuen ekainaren 4ko 368/2019 Erabakia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 4ko 368/2019 Erabakiaren bidez, 2018/2019 kanpainan Eskola Kirolaren Programan jasotzen diren jardueretan parte hartzeagatik dirulaguntzen deialdia onartu zen.

Erabakiaren 1. puntuan, akats bategatik deialdian 591.041,22 euroko kopurua jarri zen gehieneko zenbateko gisa, kopuru zuzena 591.301,22 eurokoa izanik 105.2691 kontabilitate agirian ageri denez.

Erabakiaren I. eranskinaren bigarren klausulan, "aurrekontu aplikazio" deritzonean, huts bera egiten da; beraz, aldatu egin behar da zenbatekoa, eta 591.041,22 euroren ordez 591.301,50 euro idatzi.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ondoko hau xedatzen du bere 109.2 artikuluan: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak". Horregatik, zuzendu egiten da egindako okerra.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, erabaki hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Kontuan hartuta zer xedatzen duen 109.2 artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ekainaren 4ko 368/2019 Erabakian egindako akatsa zuzentzea proposatu da, horrela, esaten duenean:

ERABAKIA

Lehenengoa. 2018/2019 kanpainan zehar eskola kirolaren programan jasotako jardueretan parte hartzeagatik emango diren dirulaguntzetarako deialdia onartzea, 2019ko ekitaldian indarrean egon dadin, eta, horretarako, 591.041,22 euro ezartzea gehieneko zenbateko gisa.

Esan behar du:

ERABAKIA

Lehenengoa. 2018/2019 kanpainan zehar eskola kirolaren programan jasotako jardueretan parte hartzeagatik emango diren dirulaguntzetarako deialdia onartzea, 2019ko ekitaldian indarrean egon dadin, eta, horretarako, 591.301,50 euro ezartzea gehieneko zenbateko gisa.

Eta esaten duenean:

I. eranskina, bigarrena, aurrekontu egozpena:

Dirulaguntzen baturak, guztira, ez du inondik ere 591.041,22 euro baino gehiago egingo.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Esan behar du:

I. eranskina, bigarrena, aurrekontu egozpena:

Dirulaguntzen baturak, guztira, ez du inondik ere 591.301,50 euro baino gehiago egingo.

Bigarrena. Erabakiaren gainerako ekainaren 4ko 368/2019 edukia berdin uztea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.16 05:37:01 Z